

BALOREZKO PROPOSAMENA

Kirola eta elikadura sustatuko dituen aplikazio mugikor bat sortzea da gure asmoa, bezero bakoitzak egiten duen kirol motaren arabera dieta pertsonalizatuak eskainiz.

Helburua da pertsonaiei laguntzea beren helburu fisikoak eta osasunekoak modu orekatu eta eraginkorragoan lortzen, kirola eta elikadura zainduz.

Pertsonalizazioari esker, erabiltzaile bakoitzak bere helburuetara egokitutako dieta eta entrenamendu plana jasotzen du. Motibazio eguneratuek errutina mantentzen eta amore ez ematen laguntzen diote, bere bertsiorik onena lortzera bultzatuz. Osasunari dagokionez, elikadura adimenduna eta kirol orekatua uztartzen dituen sistema batek ongizatea modu naturalean eraikitzen laguntzen dio. Eta komunitate aktibo baten bidez, bere aurrerapenak partekatu, besteen esperientzietatik ikasi eta benetako babesa sentitzea posible egiten zaio, bidea errazago eta motibagarriago bihurtuz.

Aplikazio honek, kirola eta nutrizioa elkar lotuko ditu, euren artean konbinazioak eginez, errutinen eta ohituren bidez.

Gainera, bakoitzaren gustora personalizatzeko aukera ere egongo da: aukeratutako kirolaren arabera (adibidez, korrika egitea, yoga egitea edo muskuloa lortzea), aplikazioak, aukerak egin ostean, beharrezko dieta eta kaloriak kalkulatuko ditu.